

Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

EKOLOGIA

Munduko arrantza, arriskuan

BERRIKI Ozeano, Itsasadar eta Irlen Mintegi orokorra egin da Hanoi (Vietnam), eta bertan elkartutako ikerlariak arrantza arrisku bizian dagoela iragarri dute, batez ere ondoko hiru arrazoiengatik: uren tenperaturaren igoera, uren kutsadura eta gainustiaketa. Arazo horiek berak aurkitu dituzte aztertutako 64 ekosistemetan, eta arrain-sardak desagertzearen arrazoa dira lau kasutik hirutan.

Mintegian adierazienez, 64 ekosistema horietatik hamaseitan berokuntza-prozesuaren azelerazioa 2007an iragarritakoa baino bi edo lau aldiz handiagoa izan da. Batez ere Txinako Itsasoan eta Itsaso Baltikoan nabaritu da tenperatura-hazkunderik

handiena. Horren eragin zehatza aurreikustea ia ezinezkoa baldin bada ere, ez dago dudarik ekosistema aldatu egingo dela. **I**



Gain-ustiaketa da arrantza arriskuan jartzen duen faktoreetako bat.

O s a s u n a

JABIER AGIRRE

Generikoak, arrakastarik gabeko botikak

HAMAR URTE IGARO DIRA botika generikoak gure merkatuan komertzializatzen hasi zirenetik. Hala ere, botika horiek ez dira erabat nagusitu Euskal Herrian, ezta gutxiagorik ere. Izan ere, generiko kontsumoa Euskal Autonomia Erkidegoan Espainiako Estatuko batez beste-koaren azpitik dago. Euskal gaixoei agindutako botiken %5,1 da generikoa –hogeitik bat– eta estatuan, berriz, %6,6. Portzentaje hori Europako batez bestekotik aurrutiago dago; Europan iaz agindutako 100 botiketatik 15 baino gehiago generikoak izan ziren.

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoa dago generiko kontsumoan lehen postuan, iaz, saldu ziren sendagai guztietatik %6,1 era horretakoak izan baitziren; atzetik datoz Araba (%4,2) eta Bizkaia (%4). Euskadiko Farmazialarien Elkarteak (AFAREk) ezagutzera emandako txostenaren arabera, hamar urteotan saldutako generikoek 281 milioi euroko aurrezpena ekarri dute Euskal Autonomia Erkidegora. Horrek EAEk sendagaietan egindako gastuaren zati handi bat orekatuko luke.

Botika generiko gehiago ez saltzearen arrazoi nagusiak bi dira AFAREn ustez. Batetik, konfiantza falta sumatzen dute gaixoengan. Bestetik, marka ospetsu eta aurrez ezaguna denaren eta generikoaren artean lehen

hautatzeko joera dute, horretara bultzatzen dituzten informazioa baitute: propaganda, marketina, eta abar.

Txostena egiteko milatik gora mediku, botikari eta gaixori galdegin zitzairen, generikoei buruz zuten iritzia. Azterketaren arabera, hamar gaixotatik bederatzi pozik agertzen dira botika generikoekin, hamar botikarietatik seik generikoak gomendatzen dituzte, eta medikuen artean, hamarretik lauk generikoak aukeratzen dituzte gaixoei egiten dizkieten errezeten erdia baino gehiagotan (duela hamar urte %8 besterik ez ziren).

Datu horiek ikusita, nola ulertzen da generiko kontsumoak oraindik ere hain arrakasta apala izatea?



Txostena egiteko iritzia eskatu zaie mediku, farmazialari eta gaixoei.

ANTROPOLOGIA

Bikingoen janzkera ez zen uste genuen bezalakoa

SUEDIAKO Uppsalako Unibertsitateko Annika Larsson ikerlariak Stockholm eta Uppsalaren artean dagoen Malaren lakuan aurkitutako janzkiak eta oihalak aztertu ditu. Eremu hori izan zen, hain zuzen, aspalditik ikerlarien jakin-mina piztu duten bikingoen lurralderik garrantzitsuenetakoa.

Antza denez, X. mendea mugarria izan zen bikingoen ohitura aldaketan, mende horren amaieran merkataritza, indar hartzeaz gain, bide berrietatik abiatu baitzen; eta ordura arte bikingoek ekialdeko zibilizazioen ohiturak baldin bazituzten janzkeran, hortik aurrera kristautasunak ezarritako moldeetara makurtu ziren.

Larssonen arabera “arropek askoz gehiago adieraz dezakete herri baten bizimoduaz urtetan zehar transmititutako ohiturek baino, azken horiek urteen poderioz eraldatu eta egoerara egokitu egiten baitira gehienetan”.

Ildo horri jarraiki, Larssonen arabera –eta orain arte uste zenaren aurka–, andere bikingoak oso era askean janzten ziren, eta adibide gisa bularrak nabarmentzen zituzten arropak aipatu ditu ikerlariak.

Ikerketa honekin, besteak beste, garai bateko herrien ohiturak ezagutzeko erabilitako bideak zalantzan jarri nahi izan dira. ■



Itxuraz, uste genuena baino dotoreago janzten ziren bikingoak.

landareak

JAKOBA ERREKONDO

mandio@zerain.com

Garomena

LOREAK SEDUKZIORAKO, limurtze gordinenerako tresnak dira. Intsektuak liluratzuz, polena eta haziak sakabanatzeko bitartekoa. Eta bitartean, gu ere xarmatzen gaitu. Eta naturan bezala gure baratze-lorategietan loraldi nabarmenak dituzten landareak nagusitzen ari ditugu. Pentsa, euskaraz ere jardinari lorategi deitzen diote, ez hostotza, ez errogune, ez enbordi, ez adarraga, ez kimutegi, ez fruitu-habi, ez haziola, ez... ez ba, lorategi!



Pteridium aquilinum, garo arrunta.

Etxe ondoko baratzean garo batzuk landatzeko lanetan eta lagunak marmarra: garoa garbitu ezinean hemen eta jata etxe ondora ekarri... eta simaurtu eta zaindu egingo dituk gainera... lorerik emango balute sikira! Aziendaren azpizgai, inaurkintetarako, batik bat, zaindu izan dira garomenak. Aziendaren garai bateko garrantzia eta erabilera hedatu honen lekuko men honen izenen ugaria: iraleku, irasail, iratzesail, iraztor, iraztoi, iratza, iratze, iraztoki, iratzaleku, iratzoki, iraztegi, irazleku, iratzeta, garosail, garomen, garoti, garoleku, istorleku, ihaztegi, jaztor eta zugar. Ondo etxekoa izan da bai garometa. Eta lagunak arrazoi du, ez lorengatik, garoak ez baitu lorerik ematen. Onddo eta perretxikoen gisara, ez lore ez hazi, esporak baliatzen ditu ugaltzeko.

Mundu honetako landare zaharrenetakoa dira garoak. Goroldio, hepatiko eta antozeroen garaikoak; landareek lorea asmatu aurrekoak. Duela 400 milioi urteko fosiletan ageri dira eta Karboniferoan (362-290 milioi urte) landare nagusiak izan ziren. Hauen gainbeheran pilatutako hondakinetatik sortuak dira petrolioa eta ikatza. Eta, loredunen kolonizazio basatiarekin batera, nola iraun dute garoak? Ba, animalia belarjaleei ez zaizkielako gustatzen, ahoa gozatu beharrean samindu egiten diete, nonbait... Ez da ez sarri ikusten den imajina, animalia berdezalea garoari tiraka...

Zentimetro gutxi batzuetakoetatik hasi eta hogeitalau metroak harrapatzen dituzten zuhaitzetarainoko garoak badira. Hauetakoak landatzen ari gara etxean, palmondoen gisara luzatzen diren hauetakoak.

Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa Erremintak Soluzioak Zerbitzuak

Adur SOFTWARE PRODUCTIONS

Adur Software Productions, S. Coop. (ASP)
 Industrialdia 1, 20186 Lesarri-Oria
 Tel. 943 37 18 48
 e-mail: adur@adur.com

INFORMAZIOAREN UNIBERTSOA